2022ko urrian erregistratutako langabezia

2022ko urrian zehar LANBIDEko bulegoetan erregistratutako kopurua egonkor mantendu da; 111.744koa da, hau da, aurreko hilean baino 64 gehiago (% 0,06ko igoera soilik). 2019ko urrian langabezia 1.707 pertsonatan igo zen, baina iazko urrian 1.063an jaitsi zen. Urriak ez du joera argirik izaten langabetuen kopuru bilakaerari dagokionez.

Nabarmendu behar da, urri honetan erregistratutako langabetu-kopurua 2008tik hilabete horretan izandako txikiena dela. Ordutik hona, 2019koa izan da gehien hurbiltzen zaiona, baina hil honetan baino 3.597 langabe gehiago zenbatu ziren.



	urr.-08	urr.-09	urr.-10	urr.-11	urr.-12	urr.-13	urr.-14	urr.-15	urr.-16	urr.-17	urr.-18	urr.-19	urr.-20	urr.-21	urr.-22
Saldoa	4.840	2.195	1.796	695	3.939	1.781	1.285	-823	-2.935	-1.990	-622	1.707	-6.287	-1.063	64

Aurreko urteko urriarekin alderatuz, 6.685 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren murrizketa azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean 384 pertsonatan hazi da langabezia; emakumeen artean, berriz, 320 pertsonatan murriztu da. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-4.019) emakumezkoen arten baino (-2.666). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko urriarekin alderatuz, 2.291 gizonezko gutxiago daude langabezian, emakumezkoak, berriz, 1.306 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 57,6 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan, langabezia 30-44 urte artekoen artean murriztu da; beheko eta goiko adin tarteetan, aldiz, hazi egin da. Urte arteko bilakaeran, 44 urtetik beherakoen artean jaitsi da gehien langabezia; 35-44 urte eta 16-24 urte artekoetan izan du bilakaera onena. 54 urtetik gorakoen tartean hazi da soilik langabezia; % 0,92 hain zuzen ere.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Urrian, balio erlatiboetan, nabarmentzekoa da eraikuntzan (-%3,42%) eta industrian (-% 1,62) langabeziak izan duen beherakada. Beste muturrean, lehen sektorean gehien hazi da (+% 12,26), eta zerbitzuetan ere (% 0,16). Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 0,86 hazi da azken hilabetean. Iazko datuekin alderatuta, nabarmentzekoa da beherakada honako sektoreetan; eraikuntza (% -16,29), industria (% -14,30) eta lehen sektorea (% -13,85). Zerbitzuetan % 1,51 murriztu da soilik eta lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean %12,88 murriztu da azken urtean.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

85 Hezkuntza ..... -622

43 Eraikuntzako jarduera espezializatuak ..... -123

93 Kirol eta aisialdi jarduerak ..... -115

74 Beste jarduera profesional, tekniko eta zientifiko ..... -103

25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik ..... -101

Aitzitik, urrian erregistratutako langabeziaren hazkunde handiena izan duten jarduerak honakoa izan dira:

01 Nekazaritza, abeltzaintza ..... +266

81 Eraikuntzetako zerbitzuak eta lorategietako jarduerak ..... +262

84 Administrazio publikoa ..... +229

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza ..... +213

97 Etxekoen unitateak etxeko langileen enplegatzaile gisa ..... +145

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 698 pertsonatan murriztu da (- % 1,26) eta epe laburrekoa, berriz, hazi egin da (762 pertsona gehiago, +% 1,35). Urte osoari begiratuz gero, epe luzeko langabeen artean murrizketa eman da (-% 9,13); epe laburreko langabeen kasuan, ere, murriztu egin da, baino dezente gutxiago (% 2,06). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia

nabarmen igotzea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 54.582 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 48,8a.

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean; baita emakume eta Bizkaian erroldatutakoen artean ere. Azken hilabetean, bilakaera hoberena, emakumeek, 30 urtetik beherakoek eta Gipuzkoan bizi direnek izan dute.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Urriko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 0,27 murriztu da, irailean baino 268 langabe gutxiago, 19.325 langabe guztira. Gipuzkoan % 0,28 murriztu da, 81 pertsona gutxiago daude langabezian irailarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 29.200ekoa da). Azkenik, Bizkaia da langabezia hazi den lurralde bakarra; 198 langabe gehiago daude (% 0,31ko hazkundea), langabetu kopurua 63.219 da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 6,42ko murrizketarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 5,55eko murrizketarekin eta azkenik Araban % 3,17 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen 123 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 0,83), Bilbon 40 pertsonatan (-% 0,18), eta Donostian, aldiz, hazi egin da 55 pertsonatan (+% 0,80).

Eskualdeetako datuak aztertuz, langabezia Ezkerraldean igo da gehien 171 langabe gehiago baitaude; igoera jasan duten beste eskualde batzuk Lea-Artibai(+37), Durangaldea(+53) eta Arabar Errioxa (+53) dira. Bestalde, beherakada handienak honako eskualdeetan gertatu dira; Gobela (-70), Bidasoa Behea (-49), Deba Behea (-39), Urola Erdia (-31) Urola Kosta (-27) eta Enkarterriak (-25).

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Alonsotegi (% 17,99), Sestao (% 16,35), Oion (% 15,83), Lanestosa(% 15,45) eta Lapuebla de Labarca (% 15,44).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko urrian 37.837 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 138 langabe gehiagok. Langabeen % 33,9k gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 20.996 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,8 dira horiek. 16.877 langabek (% 15,10), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 36,8), Bizkaian % 33koa da eta Araban % 32,5ekoa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,10 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz, aldiz, 0,13 puntu murriztu da.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,5 (18.397 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia hazi egin da atzerritarren artean (+% 3,2); bertakoen artean, berriz, murriztu egin da (-% 0,54). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 1,34 murriztu da, eta bertakoen artean % 6,45.

Langabe atzerritarren % 34,3 Afrika iparraldekoak dira, % 23,3 Latinoamerikatik datoz, % 17,5 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,1 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1 Asiatik. Urrian Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean hazi da gehien langabezia (+237);

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 59,7k (66.694 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 567 langabe gehiago erregistratu dira; % 0,86 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 5,84 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,7 dira. Talde horretan % 0,46 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean, ere, murriztu egin da; % 7,69, hain zuzen ere.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.222 dira, hau da, langabeen % 19. Talde hau urrian zehar % 0,49 hazi da, eta azken urtean, berriz, murriztu egin da; % 4,38, hain zuzen ere.

Azkenik, langabeen % 12,6k (14.053 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 3,85 murriztu da langabezia azken hilabetean eta, azken urtean, aldiz, % 5,16koa izan da murrizketa.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan, aurreko hilean baino 27.027 langabe gutxiago daude (% 0,92ko beherakada). Guztira 2.914.892 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,06 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 0,28 hazi da, Errioxan % 2,52 hazi da, Kantabrian % 0,33 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 1,47 hazi. Katalunian % 1,78 murriztu da eta Madrilen, % 0,26koa izan da murrizketa.

Lan-eskatzaile langabeak 2022ko urrian

	Urr-2022	Ira-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.433	47.049	384	0,82
EMAKUMEZKOAK	64.311	64.631	-320	-0,50
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	17.626	17.557	69	0,39
GIZONEZKOAK	8.354	8.242	112	1,36
EMAKUMEZKOAK	9.272	9.315	-43	-0,46
25-44 URTE:				
GUZTIRA	33.342	33.719	-377	-1,12
GIZONEZKOAK	12.978	12.894	84	0,65
EMAKUMEZKOAK	20.364	20.825	-461	-2,21
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.776	60.404	372	0,62
GIZONEZKOAK	26.101	25.913	188	0,73
EMAKUMEZKOAK	34.675	34.491	184	0,53
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.252	2.006	246	12,26
INDUSTRIA	11.542	11.732	-190	-1,62
ERAIKUNTZA	6.470	6.699	-229	-3,42
ZERBITZUAK	78.405	78.280	125	0,16
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.075	12.963	112	0,86
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.325	19.378	-53	-0,27
BIZKAIA	63.219	63.021	198	0,31
GIPUZKOA	29.200	29.281	-81	-0,28
EAE	**111.744**	**111.680**	**64**	**0,06**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.719	10,0%	-49	-1,30	-246	-6,20
Oarsoaldea	3.349	9,1%	5	0,15	-249	-6,92
Donostia-S.Seb.	6.973	7,9%	55	0,80	-574	-7,61
Donost.Mendebaldea	2.930	7,8%	26	0,90	-184	-5,91
Tolosaldea	1.869	7,9%	-16	-0,85	-65	-3,36
Urola Erdia	1.188	7,6%	-31	-2,54	4	0,34
Goiherri	1.640	7,6%	-10	-0,61	36	2,24
Deba Garaia	2.432	8,0%	17	0,70	-35	-1,42
Deba Behera	2.602	9,8%	-39	-1,48	-183	-6,57
Urola Garaia	1.077	8,8%	-12	-1,10	-25	-2,27
Urola Kosta	1.421	6,3%	-27	-1,86	-196	-12,12
GIPUZKOA	29.200	8,3%	-81	-0,28	-1.717	-5,55
Vitoria-Gasteiz	14.707	11,7%	-123	-0,83	-754	-4,88
Aialako Ibarra	2.208	11,8%	-1	-0,05	-62	-2,73
Arabar Errioxa	577	10,7%	53	10,11	-133	-18,73
Arabako lautada	722	9,5%	16	2,27	-22	-2,96
Gorbeia inguruak	293	6,3%	-6	-2,01	-21	-6,69
Arabako Ibarrak	408	8,0%	-3	-0,73	-19	-4,45
Arabako Mendialdea	98	6,3%	0	0,00	-3	-2,97
ARABA	19.325	11,6%	-53	-0,27	-632	-3,17
Gobela	4.429	8,8%	-70	-1,56	-366	-7,63
Txorierri	2.097	9,2%	13	0,62	-185	-8,11
Uribealdea	2.879	8,7%	5	0,17	-323	-10,09
Durangaldea	3.248	8,8%	53	1,66	-250	-7,15
Busturialdea	2.086	9,7%	10	0,48	-100	-4,57
Lea-Artibai	960	8,0%	37	4,01	-39	-3,90
Enkarterriak	1.909	12,5%	-25	-1,29	-167	-8,04
Arratia-Zornotza	1.444	8,3%	22	1,55	-89	-5,81
Arratia-Nerbioi	1.365	10,7%	8	0,59	10	0,74
Bilbo	21.765	12,9%	-40	-0,18	-1.283	-5,57
Ezkerraldea	16.543	13,4%	171	1,04	-1.180	-6,66
Ibaizabal	4.422	11,0%	19	0,43	-347	-7,28
BIZKAIA	63.219	11,4%	198	0,31	-4.336	-6,42
EAE	**111.744**	**10,4%**	**64**	**0,06**	**-6.685**	**-5,64**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.